

Asisko gutuna

2010eko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

16. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetako Gutunari dagokion laugarren printzipioak gai garrantzitsu batera hurbiltzeko aukera ematen digu, nahiz eta gai hori ez den beti erraza: Eliza, Jesusi jarraitu nahi dutenen senide-elkartea. Aukera ona izan daiteke hau, gai honek gutako bakoitzaren barruan

sorrarazten duen guztia ikusten jartzeko; funtsezkoa dena eta ez dena bereizteko eta horrela, Elizaren aurrean egoki kokatu ahal izateko, eduki daitezkeen zailtasunak baino haratago. Frantziskok, gai honetan ere, asko dauka erakusteko.

Gogoetarako gaia

Eliza, senide-elkarte

Fededunon senide-elkartea da Eliza. Fededun garen askori, batzuetan, lanak ematen dizkigu hura onartzeak edo bere irudiarekin nahiz mezu batzuekin bat etortzeak. Baina, hala eta guztiz ere, geure Eliza da. Sinestun ez direnak ez dira, sarriro, hura konprenitzera ere iristen.

Elizatik urrun sentitzen garenean, Harengana Frantzisko bere garaiko Elizarengana bezala hurbiltzea izan dezakegu lagungarri. Hark, Elizan funtsezko dena ikusten jakin zuen: Ebanjelioaren eta Jesusen Berri Ona daramala beragan. Ondo bereizi zuen Elizan Jainkoaren dohaina eta giza mugatasuna. Harentzat ezin zen Ebanjelioa Elizan beste inon bizi, bere sutondoa zuen, bere bide espirituala elikatzen zuen barrutia. Txiki izateko bokazioa ere obedientzian oinarritu zuen. Baina aldi berean leial eutsi zion bere bokazioari, berori Elizaren hierarkiaren parte on batek onartzen ez bazuen ere. Frantzisko ez zen izan ez desobeditzaile, ez menpeko inozo; ezer baino lehen, Jesusen ikasle izan zen. Guri ere sintesia eta oreka egitea dagokigu, senidetasun eta askatasunaren artean. Ezin dugu zuzenetsi, zuzenetsi behar ez dena, baina begira dezakegu sakonago: Elizaren fedearen altxor

ezkutua eta berori eskertu. Gure fedeak Elizaren fedean du sustraia. Zalantzan eta errebeldian naizenean, haren fedeak eusten dit. Historian zehar izan diren Jainkoaren testigu handiek laguntzen didate hori gogoratzen. Erraz urrutiratu gaitezke eta geure neurrira egindako fedea asmatu. Hortik dator Elizaren, bere kontraesanak eta guzti, bihotzaren garrantzia.

Erakunde honen errealitatea ikusten dugunean ezin dugu ahaztu Jesusek, hiru bider uko egin zion Pedro hautatu zuela ikasleen buru izateko. Jesusek, lurrarentzat gatz eta munduarentzat argi garela esaten digunean, eskandalizatu egiten gara gauza gutxi sentitzen garelako, baina gu garen bezalakoa da Eliza.

Paulok dioen bezala, Jainkoarekin lankide bagara, eskertu egin behar dugu Elizaren altxorra: hartzen dugun fedea; eta lan egin Elizarentzat, hura anaikorra, pobrea, berdintasunezkoa, munduarekin elkarrizketan eta Jesus eta haren Ebanjelioari atxikia nahi dugularik. Gogor eta leialki egin behar dugu lan, Elizarekiko gure begiradan, senidetasuna, esker ona, kritikotasun-zentzua eta lankidetzaz integra daitezen.

Bibliako pasarteak: Eg 2, 44-47

Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, norik zer behar zuten. Eguneroko bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia

etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak.

Espiritualtasun frantziskotarra

Orain bezala orduan ere, denek ezagutzen zuten Elizaren grazia eta bekatua. XIII. mendean Eliza, orain bezala, grazia- eta alaitasun-iturri zen, bai eta tirabira- eta sufrimendu-iturri ere. Eta bi bide zeuden: Frantziskorena eta bere Elizarekiko buruargizko obedientzia maitekorra, edo bestela kataro, albitar eta beste mugimendu ebanjeliko erradikalena, Elizarekiko beren erantzun kritiko, urrutiratze eta hausturarekin. Frantziskok eta talde ebanjeliko erradikalek, denek, zuten Elizaren hutsegite eta bekatuen berri. Batzuek kritika eta juzkua egin eta albora utzi zuten. Frantziskok Eliza bere argalunetan ezagutu zuen eta juzkurik gabe maitatu.

Zenbait alditan, egiaz, oso arrazoizkoa ez zen jokamolde honek fruitu-iturri bihurtu zuen Frantzisko eta ez suntsipen-iturri. Paradoxa badirudi ere, denboran zehar ondare izaten iraun nahi duen Ebanjelio- eta senidetasun-hautapenak, nahitaez, senideenganako, eta Elizarenganako, maitasun eta konprentzioaren gidaritzapean jarri behar du.

Otoitza

Jesus Jauna, zeure Espirituak,
geure elkarte den Eliza eraiki dezala
eta hari arnasa eman diezaiola.

Ez dezagula ihes egin
gure artean sor daitezkeen tirabiratik;
aitzitik asma dezagula horiek gainditzen
ebanjelioaren gardentasunetik,
fedearen onarpenetik
eta elkarrizketa apal, ireki eta konfiantzazkotik.

Ez gaitzela eror gauzak nahasteko tentaldian,
bakea ihesbidearekin nahasiz,
leial izatea gogorkeriarekin,
egiati izatea eraso egitearekin,
elkarrizketa berritsukeriarekin,
elkar onartzea gustu emate antzuekin
konprentzioa arazoei saihestu egitearekin.

Hazten jarrai beza geure elkartasunak Elizan,
geure artean zeure maitasun bera bizi dezakegun arte.

Gutuneko azken hitzak

Pertsona izateari ezin zaio kendu, ezta fedearen subjektu den aldetik ere, komunitario dena, elkarrekikoa dena, elkarrekin komunikatzea. (Karl Rahner)

2010eko martxoko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Lk 6,36-38	8 Lk 4,24-30	15 Jn 4,43-54	22 Jn 8,12-20	29 Jn 12, 1-11
2 Mt 23,1-12	9 Mt 18,21-35	16 Jn 5,1-3.5-16	23 Jn 8,21-30	30 Jn 13, 21-33. 36-38
3 Mt 20,17-28	10 Mt 5,17-19	17 Jn 5,17-30	24 Jn 8,31-42	31 Mt 26, 14-25
4 Lk 16,19-31	11 Lk 11,14-23	18 Jn 5,31-47	25 Lk 1,26-38	
5 Mt 21,33-43.45-46	12 Mk 12,28b-34	19 Mt 1,16.18-21.24a	26 Jn 10,31-42	
6 Lk 15,1-3.11-32	13 Lk 18,9-14	20 Jn 7,40-53	27 Jn 11,45-57	
7 Lk 13, 1-9	14 Lk 15, 1-3. 11-32	21 Jn 8, 1-11	28 Lk 22, 14-23, 56	

Oharrak:

Asis Sarearen ezaugarri nagusia da irekia izan nahi duela eta bere asmoa biderkatzea. Guztiok biderka dezakegu Asis Sarea, hileroko Gutun hau jasotzera edo hileroko azken ostegunetan 19.30ean, ohiko lekuetan, ospatzen dugun otoitzaldian parte hartzera nor gonbida dezakegun pentsatuz.

Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

Asis Sarearen web-orrian Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: *"Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak"*.

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2010eko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

16. zenbakia

Hil honetan Asisko Gutunak Elizaz, fededunen senide-elkarteaz, gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Garrantzitsua da berari buruz ze esperientzia daukagun jakitea, gutako bakoitzak zein ideia eta iritzi landu dituen ikustea; baina lehen begiradan agertzen denaz gain, inportantea da halaber Eliza den misterioari antzematea eta, zailtasunak baina haratago, nolako atxikimendu sentimendua bizi izaten da ikustea.

Eliza, senide-elkarte

Zein sentimendu esnatu dira zure baitan, hil honetako Gutunaren gaia ikustean? Zein esplikazio aurkitzen duzu horientzat?

Zehazki, zerk sortzen dizu gatazka Elizarekin, baldin eta sortzen badizu? Axola handia du hori kontziente egiteak. Nola lantzen duzu gatazka hori? Eliza albora utziz edo harengandik urrunduz, hari "gerra deklaratu", bereizkuntza eginez ... ?

Bereiz dezakezu Elizan Jainkoaren dohaina eta giza mugatasunaren ispilua? Bereizketa hau egiteak laguntzen dizu, Elizarekiko jarrera hobeto hartzen?

Elizaren eskutik hartu ditugu Jesusen Ebanjelioa eta fedea, ez gutxiago. Har ezazu denbora, zure zentzu kritikoaz haraindi, hartu duzun guztiagatik esker ona ere azaleratu dadin.

Lehen kristau elkarte

Apostoluen Eginak liburua hasierako Elizaz, lehen kristau elkarteaz, mintzo zaigu. Adu guztiak bat datoz esaten, testu honek elkarte horren irudi idealizatua ematen digula; hala era egia da, Elizaren oinarrizko ezaugarriak seinalatzen dituela.

Zer esnatzen dizu testu horrek? Nostalgia, desioa, ezinikusia, erantzukizuna... ? Zergatik?

Fededun guztiok Eliza garelako kontuan harturik, ze elkarlan egin dezakezu zeure egungo errealitatetik, Jesusen Eliza eraikitzen jarraitzeko?

Elizarekiko maitasunetik, Frantzisko fruitu-iturri izan zen

Frantziskok XIII. mendeko Elizan egin zuen bere ebanjelio-bidea, aberastasunari eta botereari itsatsitako Eliza hartan.

Pertsona heldu garenez normala da, gu Elizaren aspektu batzuekin bat ez etortzea eta gero eta ebanjelikoagoa izan dadin gure esku dagoen guztia egitea. Baina aspektu kritikagarri horiek ez al ditugu aitzakia bihurtzen, geure bidea, gu geuri dagokiguna, egin gabe uzteko?

Eliza dela-eta gaur dituzun sentimenduei, egiten die ekarpenik Frantziskoren esperientziak?

Zeure maitasun bera bizi dezagula

Asko dira Elizan bizi ditzakegun jarrerak, geureak ditugun beste edozein taldetan bezalaxe. Gure esku dago geure atxikimendua eta konpromisoa benetakotasunez bizitzea. Erabil ditzakezu, otoitzak eskaintzen dituen kontrasteak, zerbaitetan aurrera egin dezakezun ikusteko.

Ez da beti erraza Eliza bere misterio sakonean ikustea, ez eta Apostoluen Eginak aipatzen duten elkartasun hori eraikiz joatea ere. Horregatik zaigu beharrezko Jesusen Espiritua eskatzea.

Gure fedearen alde garrantzitsu hau bizi ahal izateko, oinarrizkoa izango dugu Jainkoaren aurrean apalki jartzea, hari geure zailtasunak adierazteko eta argia eskatzeko. Esker diezaiokezu Jainkoari Eliza duzun dohaina, zeure gatazka txiki nahiz handiez haraindi?